



## DEBABARRENEKO BIRGAIKUNTZA JASANGARRIRAKO PROGRAMA BEROKUNTZA SISTEMAREN INSTALAZIO OBRAK

NIRE ETXEBIZITZAN BEROKUNTZA SISTEMAREN INSTALAZIO OBRA JASANGARRIAGO  
IZAN DADIN HARTU BEHARREKO NEURRIAK:

1. Zoru (edo horma) erradiatzaile sistemak sartu, tenperatura baxuko berokuntza sisteman oinarritzen baitira (fluidoak 50°C baino tenperatura baxuagokoa da, ohiko erradiadoreetan uraren tenperatura 80°C baino altuagoa den bitartean).

Hala ere, zoru erradiatzaile baten instalazioak zoruaren sekzioa handituko duela kontuan hartu behar dugu. Egituraren gainkarga gehiegizkoa den kasuetan edo etxebizitzaren altuera erabilgarria murriztea ezinezkoa denean, tenperatura baxuko erradiadoreak jartzea azertu. Izan ere, erradiadore hauen eraginkortasuna elkarraldatzearen azalera handiagoan edo altuagoa den transmisio-faktorean datza.

2. Errendimendu altuko berokuntza sistemak instala itzazu. Hasierako inbertsio handia energia aurrezpenarekin konpentsatzen da. Ahal bada kondentsazio galdarak instala itzazu, eta hauek izan ezean, tenperatura baxukoak.

Dena dela, gogoratu 15 urte baino gehiago duten galdarak ordezkatzera gomendagarria dela.

3. CO<sub>2</sub> eta NO<sub>x</sub>-en emisio baxuak (70mg/kWh baino baxuagoak) ziurtatzen dituen berokuntza sistema homologatu bat erabili, kondentsazio galdarak edo bero-pompak esate baterako.

4. Programatu daitezkeen termostatoak erabili berokuntza eta hozte-sistemak erregulatzeko.

5. Instalazioera iristeko bidea erraztu ezazu. Instalazioen sarbide errazei esker konponketak, mantentze lanak eta aldaketak (etxetresna elektrikoak lekuz aldatzea, adibidez) erreten berririk egin behar izan gabe burutu daitezke.

Esate baterako:

- Zoru faltsua erabili, honen azpitik instalazioak egongo dira.
- Bainugelen, sukaldearen eta distribuzio espazioen punturen batean erregistragarriak diren sabai aizunak erabili.

V-013

V-018

V-068

V-036

V-048